

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Oporretan ere euskaraz zerbitzuaren tasa eguneratzea, oporretan ere euskaraz zerbitzuaren tasa arautzen duen 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 19. eranskinaren 3. artikulua aplikatu beharrezatik**

Alkatearen 2020ko apirilaren 7ko 2020/182 Dekretuaren bidez onartu zen ehuneko 1,2 igotzea Amurrioko oporretan ere euskaraz zerbitzua dela-eta egun ordaindu beharreko tarifa. Tarifa hori 2020an aplikatuko da.

1. Amurrion erroldatutako eskola umeen tasa: 56,80 euro.
2. Amurrion erroldatutako eskola umeen tasa, familia unitateko kide batek edo gehiagok programan izena eman duenean: 51,15 euro.
3. Amurrion ez erroldatutako eskola umeen tasa: 111,52 euro.
4. Amurrion ez erroldatutako eskola umeen tasa, familia unitateko kide batek edo gehiagok programan izena eman duenean: 107,93 euro.

Amurrio, 2020ko apirilaren 8a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**